



## **SARE, EUSKAL PRESOEI APLIKATUTAKO ESPETXE POLITIKAREN EGUNGO EGOERARI BURUZ**

Euskal presoei salbuespenezko espetxe-politika aplikatzen zaie oraindik ere: legeria penal substantiboa erabiltzen da, Zigor Kodearen bidez, baita Espetxeen Lege Organikoa Orokorra (ELOO) ere, preso horiei *ad hoc* aplikatzen zaizkien artikuluen bidez, eta zigorrak betetzeko kontrol judiziala ezartzen da, Auzitegi Nazionalaren bidez. Horrez gainera, ez da amaitu urruntze-politika. Horri buruz hitz egin nahi dugu agerraldi honetan.

Hala ere, aitortu behar dugu amaitzean den urtean urrats garrantzitsuak egin direla. Aurrera egin dugu gure helburuetan, baina oraindik bide luzea dugu egiteko.

### **URRUNTZE-POLITIKA**

Urruntze-politikatik hasita, esan dezakegu azken hilabeteetan, uztailetik aurrera, aurrerapen handia gertatu dela Euskal Herriko espetxeetara hurbiltzeko prozesuan, baina, hala ere, oraindik ere 19 presori (%10) aplikatzen zaie urruntzeari lotutako salbuespenezko espetxe-politika.

Aukera hau baliatu nahi dugu Barne Ministerioko ministroak duela gutxi egindako adierazpen batzuk aipatzeko: **«Cadizen ETako 190 preso izango bagenitu, legea urratuko genuke».**

Bi hausnarketa horri buruz:

- a)** Argi baduzue urruntze-politikak legea urratzea dakarrela, zergatik eutsi diozue 30 urte luzez?
- b)** Baina are larriagoa dena, zergatik eusten diozue oraindik ere eta zergatik ez dituzue bertan behera uzten legearen kontrako jarrera hori –ministroak berak aitortu du bere adierazpenetan– eta mendekuan oinarritutako espetxe-politika?

Aurrekoa esan eta gero, adierazi behar dugu SARE lanean ari dela oinarritzko eskubideak eta espetxe-legeria bera urratzen dituen urruntze-politika hori 2022an behin betiko desagertu dadin.

### **GRADU-PROGRESIOAK**

**ELOOren 72.3 eta 72.4 artikuluek** argi eta garbi jasotzen dute SARE defendatzen ari dena. Zehazki, hau dio **72.4** artikulua: *«inola ere ez da mantenduko preso bat beheragoko gradu batean, bere tratamenduaren bilakaeraren arabera progresiorako eskubidea badu».*

Hau da, ez inor mantenduko bigarren graduan hirugarren espetxe-graduan egon badaiteke.



Espetxeen Administrazioak badaki euskal preso horietako batek ere ez duela erabiliko erdiaskatasuna delituak egiteko edo ihes egiteko. Beraz, zaila da ulertzea zergatik gauzatzen diren hain astiro gradu-progresioak.

Ohar bat egin nahi dugu, hirugarren gradua lortzeko, zigorraren zati jakin bat beteta izatea beharrezkoa den edo baldintza hori eskatu ahal den erabakitzeke egiten ari diren interpretazioen inguruan.

Zigor Kodearen 36. artikulua ezartzen du ezin dela hirugarren gradua lortu zigorraren erdia bete arte.

Egia da hirugarren gradua lortzeko irizpidea lotuta dagoela presoak birgizarteratzeko baldintzekin. Hau da, presoak prestatuta dagoenean erdiaskatasunean bizitza normalizatu egiteko, hirugarren gradua ezarri behar zaio. Aurreko guztia presoak espetxean izan duen bilakaerari buruzko txosten teknikoan mende dago. Hainbat alderdi hartzen dira kontuan: delitua berriro egiteko arriskurik dagoen ala ez, kanpoaldean harrerarik izango duen ala ez, bere kabuz mantentzeko edo bizimodua ateratzeko modurik aurreikusita duen ala ez edo inguruko laguntzarik izango duen, etab. Horrenbestez, kondenaren erdia bete duten euskal preso guztiak egokiak dira hirugarren gradua eskuratzeko eta erdiaskatasuna erdiesteko.

## **ZENBAT PRESO ALDATU DIRA GRADUZ ORAIN ARTE?**

Oraingo fasean, 2022ko otsailetik gaur arte, Fiskaltzak progresioaren aurka errekurtsua jarri ondoren, Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentralak (EZEZ) hirugarren gradua atzera bota, eta bigarren gradura itzuli diren presoak eta EZEZek gradu-progresioa onartu dien presoak sartuta, **32 preso dira.**

32 preso horietatik, **6 presori progresioa atzera bota diete**, eta 2. gradura itzuli dira; **beste lauri EZEZek berretsi egin die** hirugarren gradua, eta **11 Fiskaltzak aurkeztutako errekurtsoren ebazpenaren zain daude.**

Baina Fiskaltzaren jarrerak, salbuespen-irizpideak saihesteko eta euskal presoak etxera itzultzeko bidea oztopatzeko, ez du mugarik. Hori dela eta, Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentralak berretsitako lau hirugarren graduetatik hirutan, fiskaltzak apelazio-errekurtsua aurkeztu du Auzitegi Nazionaleko Lehen Salan. Gainera, gaur egun duten erdi-askatasuneko egoera errebokatzeke eta espetxean berriro sartzeko eskatu du, eta han itzaroteko, aipatu salak Fiskaltzaren errekurtsu berri hau ebatzi arte.

## **ZENBAT PRESOK BETETZEN DITUZTE 3. GRADUA LORTZEKO BALDINTZAK, BETE DUTEN KONDENAREN ZATIAREN ARABERA?**

Aurreko apartatuan EAEko Espetxe Administrazioak hirugarren gradurako progresioa onetsi dien eta erdiaskatasuna lortu duten presoek kopurua zehaztu dugu.



Zigor Kodearen 36. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, **110** presok dute kondenaren erdia beteta. Hortaz, zigorraren betetze-mailaren arabera, pertsona horiek guztiak hirugarren gradua eskuratzeko moduan daude, eta nahitaezkoa izango litzateke gradu hori ematea presoak espetxean izandako bilakaerari buruzko aldeko txosten teknikoak egonez gero, delitua berriro egiteko arriskurik ez badago, kanpoan familia badute, etab.

Beraz, euskal presoen %64 inguruk gradu-progresiorako baldintzak betetzen dituzte. Kondena luzeak bete dituzten pertsonen ari gara; hamarkadetan urrunduta egon diren eta egoera irregular eta ikaragarri honetara ekarri gaituen salbuespenezko espetxe-politika jasan duten pertsonen ari gara. Salbuespen-politika hori gabe, pertsona horiek guztiak erdiaskatasunean edo baldintzapeko askatasunean egongo lirateke seguruenik.

Horregatik eskatzen dugu espetxe-politika arrunta aplikatzeko, egoera hau atzean uzteko. Pribilegiarik ez, baina mendekuzko jarreretan oinarritutako salbuespenak ezta ere. Jarrera horiek legez kontrakoak ziren ETA jardunean zegoenean, eta orain, are gehiago, erakunde horrek jardun armatua bertan behera uzteko erabakia hartu zuenetik hamar urte baino gehiago pasatu direla kontuan hartuta.

## **FISKALTZAREN JARRERA**

Fiskaltza era guztietako argudioak erabiltzen ari da preso horiek etxera itzultzeko prozesuaren hasiera oztopatzeko.

Batetik, argudioetako bat izan ohi da presoari oraindik denbora asko falta zaiola kondena betetzeko. Adibidez, zigorra betetzeko 8 urte falta zaizkion pertsona bati hirugarren gradua emateko, pentsa daiteke denbora luzea falta zaiola oraindik, baina ezin da ahaztu –eta hori egiten du Fiskaltzak– preso horrek 22 urte baino gehiago pasa dituela askatasunik gabe. Eta egoera hori ez da gertatzen beste preso batzuekin; beraz, berriro esan behar dugu Fiskaltzak salbuespeneko jokabidea duela.

Beste kasu batzuetan esaten da ezin direla hirugarren gradura aldatu eta bat-batean erdiaskatasunean bizitzen hasi aurretiaz espetxe-baimenik izan gabe. Baina Fiskaltza bera da espetxe-baimen horiek onartzearen kontra agertzen dena.

Egia da tratamendu-bideak gomendatzen duela, hirugarren gradura pasatu baino lehen, askatasunean epe laburrak pasatzea (baimenak), kaleratzea ez dadin gogorra izan, eta aurretiaz egiaztatu ahal izateko pertsona hori erdiaskatasunean bizitzeko moduan dagoen ala ez. Baina Fiskaltzak berak boikotatzen du tratamendu-bide hori, sistematikoki egiten baitu espetxe-baimenak emateko erabakien kontra.

Batzuetan, Fiskaltzak argudiatzen du presoek ez dutela parte hartu mendira joateko edo bisita kulturalak egiteko irteera programatuetan (ordu batzuetarako izan ohi dira). Eta gezurra da. Eta errekurtoa aurkezten denean gezurra dela alegatzeko, Fiskaltzak ez du atzera egiten. Berdin zaio.



Fiskaltzaren beste argudioetako bat da erantzukizun zibila ordaindu gabe dutela. Argudio garrantzitsua da, ELOOren 72.5 artikulua ezartzen baitu erantzukizun zibila ordaindu behar dela hirugarren gradua eskuratzeko. Baina Fiskaltzak alegatutakoa, kasu gehienetan, ez dator bat errealitatearekin, preso horiek erantzukizun zibila ordaintzen ari baitira. Egia da ez dutela erabat ordainduta, espetxean sartuta daudelako aspalditik, ez dutelako ondasun higigarririk eta higiezinik eta, gehienez, soldata xume bat dutelako, 400 eurotik beherakoa normalean (LGS baino txikiagoa); beraz, ezin zaie eskatu hortik ordaintzeko..., baina, hala ere, hortik ordaintzen ari dira. Diru horren zati bat baliatzen dute erantzukizun zibila ordaintzeko, borondatezko ordainketen bidez, baina, jakina, ordainketa txikiak dira, haien ahalmenen eta egoera ekonomikoaren arabera.

Halaber, Fiskaltzak modu nekosoan argudiatzen du pertsona horiek ez direla damutu, ez dietela berriaz barkamena eskatu biktimei, ez dituztela beren egintzak arbuiatu, ez diotela laguntzarik eman justiziarik...Hala, Fiskaltzak gutxietsi edo mespretxatu egiten ditu presoak, eragindako kaltea aitortzeko, aurkezten ari diren idazkiak. Testu horietan, adierazpen argiak egiten dituzte: egindakoaren erantzukizuna onartzen dute, indarkeriaren biktima guztien sufrimendua edo mina aitortzen dute, egoera horrek eragindako atsekabea errespetatzen dute eta haiek sentitzen duten atsekabea aitortzen dute, eta uko egiten diote etorkizunean indarkeriazko tresnak edo metodoak erabiltzeari helburu politikoak edo bestelakoak lortzeko.

Are gehiago; presoek bidalitako idazki horiek espetxeetako teknikarien abala dute askotan.

Muturreraino eraman dituzte beren prebarikaziozko jarrera judizialak, eta errekurtsioetan argudiatzen dute preso hauek ez dutela ETA erakundearekiko lotura hautsi, kontuan hartu gabe ETAk orain dela hamar urte baino gehiago hartu zuen erabakia. ETA JADA EZ DA EXISTITZEN, ultraeskuin politiko eta judiziala etengabe bestelakoak argudiatzen ari bada ere.

Fiskaltzari berdin zaio. Inguruabar horrek ez du inolako baliorik. Eta hala da ez dituelako justizia-irizpideak ardatz. EZ. Ultraeskuin politikoaren arma juridikoa bihurtu den justizia dugu aurrez aurre. Ahalegin guztiak egingo dituzte, edozein bitarteko erabilita, espetxe-politika arruntaren aplikazioa eragozteko eta presoek etxerako bidea blokeatzeko. SAREk mobilizatzen jarraituko du egoera horren kontra. Haiek konfrontazioaren alde egin dute; guk BIZIKIDETZA defendatzen jarraituko dugu.

Bizitzen ari garen egoera horren aurrean, konfiantzatik eta itxaropenetik, euskal espetxe-administrazioa egiten ari den urratsen aurrean gaude. Poliki, baina aurrera egiten ari da, eta planteamendu orokor gisa, Espetxe Administrazio honek bere irizpide profesionali jarraiki jarraitzea nahi dugu, eta, Ministerio Fiskalaren eta EZEZren jarreraren aurrean, gradu-aurrerapenak berriro proposatzea Auzitegi Nazionalak hirugarren gradua blokeatu dien presoek.

Egoera horren aurrean, EAEko espetxe-administrazioa ematen ari den urratsak ikusten ari gara, konfiantzaz eta itxaropenez. Astiro bada ere, aurrerapausoak ematen ari dira, eta espero dugu, planteamendu orokor gisa, espetxe-administrazio horrek bere irizpide profesionalak izatea ardatz hemendik aurrera ere, eta, Fiskaltzaren eta EZEZren jarreraren



aurrera, berriro proposatzea gradu-progresioak Auzitegi Nazionala espetxeko hirugarren gradua blokeatu dien preso guztiei.

## **5/2003 LEGE ORGANIKOA**

Gero eta beharrezkoago da, justiziaren beraren sinesgarritasuna bermatzeko, epaitegi naturalei itzultzea dagokiena, hau da, 2003. urtetik aurrera, 5/2003 Lege Organikoaren bidez, epaitegi horiei ebatsi zitzaiena eta Auzitegi Nazionalaren eskumenetan sartu zena.

Zergatik ez du erabakitzen Bilboko espetxe-zaintzako epaitegiak kondenak azkar bete behar diren ala ez? Edo gradu-progresioak egokiak diren ala ez? edo baimenak eman behar diren ala ez? Bada, erabaki zelako SALBUESPENENKO espetxe-zaintzako epaitegi batek kontrolatu behar zuela preso hauei zegokien guztia. Eta epaitegi hori Auzitegi Nazionalan dago, zeina salbuespen-auzitegia baita.

Laburbilduz, onartezina da 500 km-tik gorako distantziara dauden epaileek eta fiskalek erabakitzea preso horiei dagokiena, espetxeetako profesionalen lanaren kontra eginda sistematikoki. Gainera, ez daukate preso horien eboluzioaren berri.

## **ABENDUAREN 10A, GIZA ESKUBIDEEN EGUNA**

**Egun honetarako Manifestazio bat deitu dugu Durangon, 17: 30ean, Landakotik, Etxerako Bidean Oztoporik ez! Gradu Erregrasiorik ez! lelopean. Auzitegi Nazionaleko fiskaltzak hirugarren graduei aplikatzen dien etengabeko blokeoa salatzen.**

## **URTARRILAREN 7A**

Etapak betetzen ari gara. Astiro bada ere, helburuak lortzen ari gara. Maiz esan dugun bezala, bide luzea dugu egiteko.

Oztopoak kendu behar ditugu, etxerako bidea errealitate bihurtzeko. Espetxe-politika arrunta aplikatuta egin dezakegu. Ez dugu pribilegiorik eskatzen. Guztiontzat justizia berdina baino ez dugu eskatzen. Salbuespen-egoerari amaiera emateko eskatzen dugu.

Urtarrilaren 7an, Bilbon, aukera ederra dugu erakusteko euskal gizartearen zati handi batek ez duela nahi bere isiltasuna argudio bezala erabil dezaten espetxean bi hamarkada baino gehiago –kasu askotan– egin dituzten pertsonen sufrimendua luzatzeko.

Guztion artean egoera hau atzean uztea lortuko dugu. Eskubideen defentsa, giza eskubideen defentsa guztion ardura da.

**Denok batera, lortuko dugu.**